

Donostian mila bederatzireun eta berogetamakagarren urteko Zezeilaren ogetairuan, Azkue jauna maipuru dala ta Etxaide, Krutwig, Irigarai, Lekuona, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak baturik, egiten da Ekautaren jauregian il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzara.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzarraren agiria irakurten da. Ao batez onetsi da.

Dassance jaunak ezin etorria iragarri dau.

Urrengo, oraintsu izentauriko urgazle batzuren erantzupenak onesten dabezela eta biotzetiko eskerrak emoten dabezala. Onexek dira eurok: Erlangendik, Bouda; Erratsundik, Fagoaga; Aniztik, Azkarate; Donostiatik, Labaien; Senperetik, Dufau; Azparnetik, Larzabal; Mugerretik, Hiltzu; ta Bilbotik, Arrutza.

Gero irakurri da Alan H. Kelsok Floridatik bidalduko idazki ba Euskal-lan batzuk esku artean darabiltzala, batez be "Gramática comparativa Vasco-Protoineuropea" da Diccionario comparativo Vasco-Protoidoeuropeo" izenakaz, Españeraz eta Ingeleseraz argitaratu gura leukezanak, eta Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dau orretarako. Bere lan orreek euskaltzaindiak pozik ikusten dabezala, baña oraingoz argitaratzeko diruz ezin lagundu dautsola erantzutea erabagi da.

Urrengo Luis Villasante Kortabitarte A. urgazle izentatzea erabagi da.

Krutwig jaunak gogoratzen dau Nikolas Ormaetxea (Orixe), euskaltzaintzat eskiñita dagoala, ta itauntzen dau beronezaz ezer erabagiko dan. Jaun ori kanpotik dagoala ta arazo au bego bein.

Maria Paz Ziganda, urgazle izentatzea be ebatzi da.

Adierazoten da Bilboko apezpikuak euskaltzaindiari emoten dautsan abegi ona: pozik artzen da berau.

Lenagoko erabagiz Donostiako apezpikuari egin jakon eskariari, jaun orrek emondako erantzupena irakurri da.

Agerre euskaltzain urgazlearen idazki bat be irakurri da. Iruña aldetiko euskera-gai batzuk azaltzen dauz.

Azkenez Krutwig jaunak irakurten dau "Eusko Philologia. Euskararen Gramatikako oria" deritxon lan sakon bat.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz emoten jako batzarrari amaiera.

*Euskaltzainburua*  
Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkue

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga